

## "Politikaren ataria". Rikardo Arregi

*Zeruko Argia*, 353. zk., 1969-12-07: 5.

"Lur" editoriala - Hastapenak 1. Itxaropena'k irarria

Liburu onen sarreran agertzen den "Euskal liburu-egintzaren problematika" jardun onek Rikardo'ren ezaugarri bereziak ba ditu. Emen ageri dira garbi asko bere erriaren utsak betetzeko larritasun gorria, ta eziñ-egoneko berak maiz aitatzen zuan eruegazio "santifikatua".

Gizon batzuek ba dute orrelako jaungoikozko edo ezin-egon harri bat; nunbaitetik denbora gutxi geratzen zaiotela susmatzen ba lute bezela. Nik ez det uste Rikardo'k estutasun edo presa au beretik eraginda zabilkianik, erriaren arnas estuak berak larrituta baizik. Argi aski ikusten zituan arek Euskalerrria'ren utsak eta goseak, eta baita gañezka egiten dioten ondakiñak ere. Orrek bultzatzen zuan mutil argi au lanera, ta baita asarrera ere; sekula asarrerik nabaitu ez duten asko izango dira gizonaren eta Jaungoikoaren inpernuan, eta asarreak jotako asko jaungoikozko ta gure erri-lanetako zeruan. Bere indar onek legezkatzen ditu berak egin izan al ditun utsak; besteak orrenbeste ba gendu!

"Egiazi esan genezake –dio Rikardo'k jardun onetan, bere itz berekin laburtuta– euskerazko sailak dauzkaten editorialetatik batek ere ez daukala euskal liburuaren politika bat", "ez dute liburu jakin batzuek eskriba ditezen erreztasunik ematen". "Irakurle berriak billatzeaz ez dira kezkatu". "Liburuaren erostuna lehengo abertzale zaharra da", "irakurtzeko *asmoz* (bakarrik) erosten duena". "Haien bekatu larria da, ez dutela publiko gazte eta politikoa bat landu", ta "merkatu ohituaren saturazioa" eldu da; orain artekoa, ba, "sistema bezela (izan da) literatura gaztea ebitatzea". "Gauza probatu behar ez deguna da" "mila lan inportante daudela argitaratzaileak ukatzen direlako". Editorial berri batzuek ekin diote, bañan "ideiok ez zutela gorputz bat "artu"; "liburuaren planning oso bat eduki behar dela" dio, ta azkeneko "berriztatu nai onek ekintzaren ordena aldrebestu du; lehenik teknikazko problemei aurkitu nahi ukan deraute soluzioa"; "hau da, argitarazioaren prolema legal eta ekonomikoengatik arduratu direla, eta gero aurkitu dutela ez zedukatela zer atera interesante edo berririk".

Gero, bere asmoko oñarri oiek jartzen ditu Rikardo'k:

"Euskal liburuaren programazio batek oinarrizko hiru sail hauekin kontatu behar du": I. *Kulturaren dibulgazioko oinarrizko liburuak*: Zientziaren eta kulturaren gai guziei buruzko liburu sorta informe-ekarle bat behar litzake". "Pentsamentua daukana haien masimoa 125 orrialde izanen dela, eta minimoa 90. Terminolojiak eta ortografiakzko batasunari buruzko diktadura bat egonen litzake". II. *Itzulpen eta saiaera laburrak*: Gaurkoz autorerik ezagunenak euskeraren traduzitzea", "autore hoiien kapitulorik inportanteenak traduzitu eta liburu tipietan publikatu beharko lirake. Honera, gainera, bigarren epoka katean liburu osoetako traduzioa planteatzeko esperientzia naikoa

logratu dugu". III. "*Literatur-kreazio hutseko obrak*: Edozer literatur-klase sartuko litzake honen barrenean, euskerazkoa eta erderatik itzulia".

Ba da editorial berriaz Rikardo'k esaten duena.

Gero, *Politikaren atarian* liburuak berak *Oharra* bat du, esanaz liburu au ulertzeko, egillearen garaia ta giroa ezagutu bear direla; au dala zientzia politikoaz egiten den euskerazko lendabiziko liburua, politika bera osotasunean beintzat. Politika dala-ta, euskel literaturak berea ba duala, bañan "politika bera explikat duen libururik ez da oraindik argitaratu". Euskalerrian lenengo maillako ikastoletatik kanpora oso gutxi degula gure gazteen ezierako, ta Unibersidade alerik ere ez; orregatik, ezin izango dala liburu au "eginkizun hortarako idatzia; ba da ordea herriaren sail bat politikatua dagoena", "hoientzat idatzi da liburu au batez ere". "Bere eboluzioan, euskel kultura gelditu edo atzeraka hasi arren, ez dira horregaitik zenbait erdal kultura gelditu". "Besteak aurreratu dunetan besterik gabe ezin bazter dezakegu". "Lehen mailla orixe da beraz: erdal kultura aurreratuenak *erdietsi* dutena eskuratzea eta guretzea". Bigarren zaillarako: "gure buruarekin pentsatzen hasi behar dugu", ta "euskal kulturaren eguneratzean bi dira egin behar diran lanak: besteak ikasi dutena guk ere ikasi ta gurekasa pentsatzea hasi".

Gero ba du bere *Sarrera* motz bat, eta iru jardun edo kapitulo: I *Politika hitzeri buruz* (7 orri). II: *Politikologia: politikaren zientzia* (45 orri), ta III: *Politikaren pentsalari handiak*. 1- Platon eta Aristotele, 2- Aquinoko Santo Tomas. 3- Machiavelli, 4- Montesquieu, 5- Hobbes, 6 palta du, 7- Spinoza, 8- Rousseau.

Naiz eta bat edo beste izentata, ez du oiñarriko liburuen bibliografirik ematen.

Ta, bukatzeko. Liburuaren lenengo orrira nator: Liburu onekin asten da "Lur" Rikardo beraren asmoa izan zen zail berri batekin, eta bere asmoak: 1) euskerazko kultura osatu ta zabaldu, 2) euskeraren batasun eta terminolojia eretzen asi. Ta editorialak bere dituan asmo batzuek ere azaltzen ditu: euskera bekarrik erabilliko dutela, ez dutela "ideologia bat ezarri nahi irakurleogan" ta "plan au aurrera eramateko, idazleen eta irakurleen kolaborazioa" eskatzen da.

Azkeneko oarra: "Rikardo'k hil zenean, liburua amaitu gabe utzi zuen, eta agirian zegoen haren lana 'lehen eskuizkribuz' mailan zegoela; lan izigarria izan da inprentara, eramateko egokitzea; lan au Rikardo'ren anaiak egin dute, batez ere Joseba'k".